



**LANDA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN
2021EKO ZERGA kobratzeko agindua**

2021eko uztailaren 12tik irailaren 12ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatez ordaintzeko epean kobratuko dira landa-izaerako ondasun higiezin gaineko 2021eko zergari dagozkion ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa inongo banketxetan helbideratuta ez badute, Maeztun bulegoa duen banketxean Arraia-Maestuko Udalak duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, goian adierazitako epean. Ordaindu aurretik, zergadunek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banketxeetan helbideratu ahal izango dutela. Helbideratutako ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira 2021eko uztailaren 30ean.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari ekingo zaio, halaxe xedatzen baitu indarrean dagoen Zerga-bilketarako Araudi Orokorrak. Ordaindu gabekoak kobratzean, legezko errekarguak erantsiko dira, eta, hala badagokie, berandutze interesak eta sortutako kostuak.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maestu, 2021eko uztailaren 12a

Alkatea ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

**Puesta al cobro del IMPUESTO SOBRE BIENES
INMUEBLES DE NATURALEZA RÚSTICA 2021**

Durante los días hábiles comprendidos entre el 12 de julio y el 12 de septiembre de 2021 ambos inclusive, estarán puestos al cobro, en periodo voluntario, los recibos correspondientes al impuesto sobre bienes inmuebles de naturaleza rústica correspondientes al año 2021.

Las personas contribuyentes afectadas por dicho impuesto y que no tengan domiciliado el pago en ninguna entidad bancaria, podrán realizar el pago de sus deudas tributarias mediante ingreso en la cuenta que el Ayuntamiento de Arraia-Maestu tiene abierta en la entidad bancaria con oficina en el núcleo de Maestu, durante el plazo señalado, debiendo recoger previamente los recibos en las oficinas municipales, en horario de 8:00 a 15:00 horas de lunes a viernes.

Asimismo se recuerda que los contribuyentes podrán hacer uso de la domiciliación del pago a través de entidades bancarias. Los recibos domiciliados serán cobrados en las entidades bancarias el 30 de julio de 2021.

Transcurrido el indicado periodo se iniciará el procedimiento ejecutivo de apremio administrativo de conformidad con las disposiciones establecidas en el vigente Reglamento General de Recaudación, procediéndose al cobro de las cuotas que no hayan sido satisfechas con los recargos legalmente establecidos y, en su caso, los intereses de demora y las costas que se produzcan.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Maestu, 12 de julio de 2021.

El Alcalde, ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

